

DENBORAN BARRENA

Presentación Laida Zabala, 13 urte

Donostia

2004ko urriaren 17a zen. Aitzane eta bere koadrila, Nafarroa Oinezera zihoazen autobusez, pozik, hitz egiten gelditu gabe. Lagunekin bakarrik ateratzen zen lehen aldia zen Aitzanerentzat. Egun horretantxe 15 urte betetzen zituen, eta bere lagun onenarekin, Iratxerekin, hitz egiten ari zen.

–Iratxe, zin egidazu Nafarroa Oinezera iristen garenean koadrilatik bananduko garela, Iker hori begibistatik kentzeko bada ere. Zer diozu? erregutu zion, belarrira xuxurlatuz, Aitzanek.

–Beste norbait etor al daiteke? –galdetu zion lagunak.

–Niri hori berdin zait, ni ez naiz nor zuri ezer agintzeko. Ikerrengandik urruti egotea besterik ez dut nahi. Bera ondoan baldin badut, ez zait mutirik hurbilduko, eta, egia esan, gaur buruan ligatzeko ideia neukan. Gainera, pepelerdo hori ondoan baldin badut, eguna izorratuko dit, ez baitago hori jasango duenik! –protestatu zuen Aitzanek ahotsa pixka bat altxatuz.

–Hori bada lasai, ez baitiot utziko Ikerri zuregana hurbiltzen. –Aitzanek irribarre egin zion, esker onez.

Momentu horretan, autobusa Lizarrara iritsi zen, Ikerrek Aitzane gustuko zuen eta honela urte erdia zeraman jadanik. Mutil jatorra izan arren, izugarritzko lapa zen eta neska gizajoak ez zuen jada gehiago jasaten. Mutila gainetik kentzen laguntzen zion bakarra Iratxe zen, beraz, Aitzanek laguntza behar zuen bakoitzean, lagunari eskatzen zion.

Autobusetik jaitsi eta bi lagunak koadrilarekin elkartu ziren. “Gora Euskadi” txapelak buruan jarri eta zuzen-zuzenean Berri Txarrak taldearen kontzertua izango zen lekurantz abiatu ziren. A ze giroa zegoen han! Aritz eta Iñaki, txosnetara edari bila joan ziren, zaharrenak zirela ematen baitzuten eta besteak, laguntzeko asmoz, hauen atzetik jarraika. Alkohol litro batzuk hartu ostean, eszenatoki aurrean zegoen aldapa igo eta lekurik garbienean kokatu ziren. Hau egitean, plastikozko edalontziak banatu eta bakoitzak nahi zuena edaten hasi zen.

Handik laurden batera jo behar zuen Berri Txarrak rock taldeak, baina giro izugarria zegoenez, berehala igaro zitzaizkien minututxo horiek... Musika ona benetan, bai horixe! Aitzane kalimotxoarekin eskuan, ero moduan abesten ari zenez, ez zen konturatu Iker bere ondoan esertzen ari zela:

–Tragotxo bat nahi? –sagardoa zuen edalontzia hurbildu eta ondoan eseri zitzaion. Neskak Iker

ikusi zuenean, bat-batean isildu eta aurpegia zurbil jarri zitzaion:

–Ez, lasai, neurea daukat eta –erantzun zion zakarki aurpegira begiratu ere egin gabe.

–Noski... ez naiz konturatu... aizu nahi al zenuke... –Plaust! Mutil gizajoari bi litro sagardo gainera erori zitzaizkion. Aitzanek atzerantz begiratu zuen. Iratxe, Ikerren atzean zegoen eta faltsukeriaz barkamena eskatzen ari zitzaion, eskuan zeukan edalontzia hutsik zuelarik. Mutila haserre komunitara joan orduko, Iratxek lagunari, begiaz keinu bat egin zion eta barre maltzur bat bota zuen:

–Eskerrik asko –eskertu zion Aitzanek eta hau ere barrez hasi zen. Iker aurrean ez zegoenez, edaten eta aldi berean abesten jarraitu zuen:

...geroa eta iragana ezabatuak izan dira
oraina luze eta antzua, mutu itsua geure aurrean...

Ez gaudela Erdi Aroan
Egutegiak dio pare bat milenio
Diktaketatik kanpo...

Momentu horretantxe, Aitzaneri burua bueltaka hasi zitzaion eta “Erdi Aroan” hitza bere buru barnean behin eta berriro entzuten hasi zen. Izugarrizko mina sumatu zuen kazkazurrean... koloreak, kolore asko, bata bestearen atzetik, burua lehertzekotan... Begiak ireki eta aurrean zeukan paisaiara begiratu zuen... non zegoen? Lehen eszenatokia zena mahasti bihurtu zen eta eserita zegoen aldapa sastrakaz josita egon ordez, belarrez beteta zegoen... Eskua buruaren atzealdean jarri zuen, mina zeukan lekuan. Hazka egin eta

begien aurrean jartzerakoan, eskuan odol dexente zeukala ikusi zuen. Izugarrizko sustoa hartu eta ohartu gabe, atzera salto bat egin eta lagunekin apur bat lehenago igotako aldapa guztia txiribuel-taka jaitsi zuen. Goitik behera begiratu zen: kami-seta zulotuta, besoetan zauriak, galtza luzeak motz ematen zuten eta hankan zauri handi bat nabar-men... eskerrak botak ondo zituela!

Burua altxatu eta aurrean zeukanari begiratu bat eman zion. Iratxe monastegia nahiko gertu zeukan eta jendea bertan sartzen eta ateratzen ari zen. Aurrean, harri txintzarrez osaturiko bidea, Santi-agoa eramaten zuena hain zuzen ere, berak kon-tzertuan zegoenean ikusitakoaren antzekoa eta bertatik, jende asko igarotzen ari zen, denak nora-bide berean, Santiorantz seguruenez. Hauek trapu zaharrak jantzita zeramatzaten eta gehienek aurpe-gia estalita zeukaten. Gurdiz zein astoz zihoazen negarrez edo isilik. Ondoan zegoen Lizarra herri-tik ihesian zihoazela zirudien.

Aitzanek begiak erabat irekiak zituen, bere sudu-rran aurrean zegoen ikuskizuna sinetsi ezinik. Ez zuen erreakzionatzen, ametsetan ari ote zen? Ikus-ten ari zena, apur bat lehenago lagunekin antze-mandakoaren antzekoa zen, baina beste garai bate-an bezalaxe zegoen. Zer gertatzen ari zitzaion? Ikusten ari zena egiazkoa ote zen? Altxatu eta Lizarrarantz abiatu zen, beste erromes guztiak ez bezala. Minutu batzuk bakarrik zeramatzan ibilian, norbaitek tiraka egin zionean:

–Aitzane –ahots ezagun batek xuxurlatu zion belarrira. Sustoa hartu eta buelta eman zuen, atzean zeukan emakumeari begiratuz. Aitzaneren altuera berekoa zen, eta beltzez jantzita zihoan. Puntan bukatzen zen txano more ilun bat zeraman, sorginen antzerakoa eta poltsa, tramankulu, zein irudi batzuk gerritik zintzilik. Aurpegia, beltz koloreko ehun fin batez estalia zeukan, begiak bakarrik erakutsiz. Emakumeak aurpegia bistaratu zion, aurpegi guztia agerian utziz. Orduantxe, Aitzanek garrasi egin eta aurrean zeukan atsoa besarkatu zuen:

–Amona! –garrasi egin zuen negarrez, urte bi lehenago hil zitzaion amona besarkatzen ari baitzen. Neska, amesgaizto horretan ezagun bat aurkitzeak lasaitu egin zuen, baina aldi berean gauzak ulertezinago jarri zizkion. Denbora luze batean elkar askatu gabe egon ondoren, neskatxak larritasuna adierazi zuen bere ahotsean:

–Amona, lagunekin festan musika entzuten ari nintzen, abestian “Erdi Aroa” aipatu dute eta gogoia ilundu zait eta “Erdi Aroa” hitza behin eta berriro entzuten hasi naiz, derrepentean koloreak ikusi ditut, esnatu eta leku honetan agertu naiz, erori egin naiz, ez dakit non nagoen, ez, eta zer pasatu zaidan, lehen nengoen leku bera da, baina... –Amonak isiltzeko keinua egin zion hatza ahoan ipiniz, iloba oso urduri eta txuri-txuri ikusten baitzuen. Besotik heldu eta basorantz eramane zuen.

Handik denbora gutxira, ezkutuan zegoen harrizko etxetxo batetara iritsi eta Antxonik (amo-

nak), bertako atea ireki zuen, bi aulki elkarren ondoan jarriz eta hauetako batean eseri zen. Ilobak gauza bera egin zuen. Aitzanerentzat txabola nahikoa beldurgarria zen: pareta batean aharia- ren buruhezurra zegoen, bestean bele disekatu bat, izkina batean eltze handi bat, ohe txiki bat arropa askoz estalirik, belar mordoa apalategi batean... Atsoak isiltasuna apurtu zuen:

–Kontatu iezadazu gertatu zaizun guztia zehatz mehatz, maitea.

Amonak esan bezalaxe, neskatoak pixkanaka-pixkanaka gertatu zitzaion guztia azaldu zion. Honek esandakoa sinesten zuela adierazteko kei- nua egin zuen, behatzak ahoan jarri zituen eta pentsakor jarri zen:

–Ez dakit nola iritsi zaren hona, baina hemendik lehen bai lehen atera behar zaitut.

–Zer dela eta? Amona, ezer ulertu gabe jarraitzen dut, nik ez dakit... –jarraitu zuen urduri gazteak.

–Tori, edan ezazu hau –agindu zion zaharrak lasaitzen ez zela ikustean eta edalontzi bat hurbil- du zion. Aitzanek, eskainitakoa edan ostean, lo seko geratu zen. Amona sorgina zenez, pasta more bat prestatu eta ilobaren zaurien gainean jarri zuen; honela hauek sendatu zizkion. Arropa aldatu zion ilobari. Esnatzen zenean, gutxienez, lasaiago egongo zen.

–Hobeto al zaude? –galdetu zion itzartzerakoan. Neskak buruaz baiezkoa egin zuen.

–Izurrite beltza dago herrian eta horregatik doa jendea Santiagorantz, izurriteak jota daudenez,

sendatu nahian. Beraz, hemendik joan behar duzu. Galdera asko izan behar dituzu buruan, ezta? –ez zuen neskatoaren erantzuna itxaron– nolatan iritsi zaren hona, nolatan nagoen ni hemen eta nolatan naizen sorgina, ez da hala? –neskak baietz esan zion:

–Hemen nolatan zauden ezin dizut azaldu, ez baitakit. Baina ni zergatik nagoen leku honetan bai. Norbera, hil eta handik bostehun urtera berriro jaiotzen da, lehengo itxurarekin edo izaerarekin, bietako bat. Inoiz ez gara horretaz gogoratzen. Ni kasu honetan bai, sorgina bainaiz, baina zu inoiz ez zara oroituko, munduko jende gehiena bezalaxe. Bizi garen garaiaren arabera bizitzeko era ezberdinak ditugu, egokitu behar baikara. Ikusten duzunez, ni sorgina naiz eta zuk ikusi eta berehala ezagutu nauzunez, hemendik bostehun urte ingurura itxuraz berdina izango naizela ziurta dezaket, baina, ez dut izaera bera izango... Orain esandakoarekin gelditzen zitzaizkidan bi galderak erantzun al ditut, maitea? –bere aurrean zeukan neska harrituari begiratu zion.

–Eta nolatan jakin dezaket hau ez dela amets bat?

–Izan daiteke, izan daiteke... baina hala ere, ez zaitut arriskuan jarri nahi, kristautasuna dela eta, soldaduak nire bila baitaude, ni harrapatu eta hiltzeko prest, neure lagunekin egin dute bezalaxe –malkoak irten ziren tristura ageri zuten begietatik.

–Lizarra ezagutu nahi dut –eskatu zion Aitzanek amonari zorrotz begiratzuz bestela ez baitzion utziko.

–Zure nahia da ezta? Baina baldintza batekin.

–Esan!

–Ez zara nigandik urrunduko, ados? –gazteak baiezkoa egin zuen eta sorginak gerritik zintzilik zeukan poltsa bat jarri zion esku artean.

–Izurrite beltza dela eta, Lizarra hankaz gora dago eta ez da leku segurua. Norbaitek mina egin nahi badizu, poltsa hau lurrera jaurti behar duzu, bere oinetara, baina soilik sorginengan sinesten baduzu lagunduko dizu, ados?

–Ados –errepikatu zuen ausarki Aitzanek eta etxe hartatik atera ondoren Lizarrarantz abiatu ziren. Laster iritsiko ziren.

Gazteak beren begien aurrean ikusi zuen hondamendia gogorregia izan zen, ez zen ezagutzen zuen beste Lizarraren antzik: kaleko azoka gehienak hautsita zeuden, eta puskatuta ez zeudenen nagusiek kaleko jendeari negarrez zerbait erosteko erregutzen zioten, belauniko. Dena ilun zegoen, izurrite beltzak kutsatutako jendea kale kantoietan negarrez, lurretik arrastaka, soldaduak etorri eta hiltzeraino jipoitzen zituzten bitartean... Aitzanek ezin izan zien malkoei bidea galarazi sentitzen zuena erakusteko. Amonak ilobaren malkoak ikustean, besotik gogor eutsi eta lasaitzeko keinua egin zion. Momentu horretan, ahotsak entzun ziren garrasika, herritarren ahotsak:

–Deabruak! Nazkanteak! Erre, erre, erre! Sutara! –amonak hori entzutean, jauzi bat eman

eta korrika batean oihuak entzundako lekurantz abiatu zen, herriko plazara, hain zuzen. Bertan sorginak urkatzen ari zirela ikusi zuen Aitzanek eta berehala amonari begiratu zion. Hau gorri-gorri zegoen eta gorrotoaren gorrotoz negarrez ari zela ikusi zuen. Herritarren txaloen gainetik entzun ziren bere hitzak:

–Zerri alenak! Inkisidoreak! Nazkagarriak!
–Aitzanek ez zuen inoiz honela ikusi, negarrez eta garrasi batean. Soldadu batzuk amona harrapatzera zihoazela ikusi, eta neskatilak amona bultzatu zuen:

–Korri, amona! Korri! Zure bila datoz eta! Zoaz!

Amona berehala atera zen korrika, ilobak jarraitu egiten zuela pentsatzen baitzuen, baina honek ezer egiten ez bazuen, amona harrapatuko zutela ikusten zuenez, soldaduak geldiarazten saiatu zen. Beraz, ondoan zeuzkan ohol zahar batzuk bota zizkien hiltzaile horiei, eta, atzera begiratu gabe, amonari jarraitu zion.

Amonak oso poliki egiten zuen korrika! Harrapatu behar zuten! Amona ere bere aurrean hildako sorginaren antzera hilko zuten! Orduan, amonak eman zion poltsatxoa gogoratu zuen. Poltsikotik atera eta begiak itxi zituen, amonak esandakoa gogoratu zuen “soilik sorginengan sinesten baduzu, lagunduko dizu...”. Bere begien aurrean arrazoirik gabe emakume bat sorgina zelako nola hil zuten ikusi ondoren, ez zitzaion zaila egin haiengan sinistea, ez baitzuen pentsatzen pertsona txarrak zirenik. Gauzak bestelakoak

ziren, aldatu egin ziren berarentzat, sorginen egia ikusi zuen, eta baita urtetan zabaldu zelako gezurra ere.

Hau pentsatuz, begiak itxi eta poltsatxoa lurrera bota zuen, izugarrizko eztanda sorraraziz. Soldaduak itsututa minez, aharrausika ikusi zituen, baita jendearen oihuak entzun ere. Irribarre egin zuen “merezi zenuten zerri alenak!” ozenki esan eta lasterka jarraitu zuen amonaren atzetik, jada inor ez baitzeukaten atzetik. Ez zituzten harrapatuko. Korri egiten gelditu gabe, elkar aurkitu zuten lekuraino iritsi ziren eta Aitzanek amona arnases-tuka zegoela ikustean, aldapan zegoen belar goxo-aren gainean esertzen lagundu zion, bera ere ondoan eseriz. Amonak iloba besarkatu zuen:

–Ai ama! Ia harrapatu naute, zuregatik izan ez balitz! Asko poztu egin nau eman nizun poltsatxoak funtzionatu duela ikusteak, sorginen zintzotasu-nean sinesten duzula erakutsi baitu horrek –musu eman zion aurpegian zeukan irribarrea itzali gabe-eskua poltsikoan sartu eta lepoko bat jarri zion lepoan, buztinezko bele beltz txiki zoragarri bat zintzilik zeukalarik.

–Sorginen ikurra da. Soinean eramanez ezazu beti, sorgin izan nahi zutelako hil zirenen eta gaur egun existitzen diren sorgin guztien arimak baitauzka barruan, eta lagundu egingo dizute, behar duzunean. Norbaitek duen bitartean existitu ginela gogoratuko da, eta ni ere bertan izango naiz beste guztiekin batera, zuri laguntzeko prest, ados? –maitekiro laztandu zion masaila. Nire amonak eman

zidan hamabost urte neuzkanean eta orain zuri ematen dizut, bestela, oroimenean galduko da eta— Ilobak negar batean besarkatu egin zuen:

—Ez zaitut inoiz ahaztuko, amona!

—Ezta nik ere, gelditzen zaizkidan egunetan zein iloba zoragarria izango dudan hemendik bostehun urtera gogoratuko dut —irribarre egin zion aurrean negarrez ari zen ilobari —baina joan egin behar duzu, laztana—. Azkeneko besarkada eman eta zutitu egin ziren.

... Izan direlako gara,
Garelako izango dira...

—A! Ahaztu gabe, zorionak, maitea —hori izan zen amonaren ahotsa entzun zuen azkenekoa, zorionak, zorionak... burua bueltak ematen hasi zitzaion... koloreak, kolore asko, bata bestearen atzetik... DANBA!!!! Begiak ireki zituen. Iratxeren aurpegia izan zen ikusi zuen lehena:

—Aitzane! garrasi egin zuen honek eta gogor besarkatu zuen.

—Ondo al zaude? —entzun zuen nahas-mahasean. Burua altxatu eta lagunei begiratu zien. Iker erdi negarrez zegoen, Iratxek negar egin zuela ikusten zen, aurpegia gorria baitzuen, baina momentu horretan alai zegoen; besteak, antzeko zeuden.

—Ondo al zaude? Momentu batean konortea galdu duzu eta laster norbaiti zu larrialdietara eramateko eskatu behar genion. Zer gertatzen zaizu? Sekulako sustoa eman diguzu! —Iratxek esertzen lagundu zion.

–Erdi Aroan ibili naiz Iratxe! Amona ikusi dut, Antxoni, gogoratzen? Sorgina zen eta... –lagunek aurpegi arraroarekin begiratzen ziotela nabaritu zuen, astakeriak esaten ari balitz bezala.

–Gehiegi edan duzu, Aitzane. Amets bat izango zen. Mozkortu egin zara, atzo gutxi edateko esan nizun, kalte egingo zizula inoiz ez baituzu edaten neska; baina, beti bezala, kasurik ez; Orain lasaitu eta kontzertuaz gozatu, ados? –bere ondoan eseri eta jateko bokata bat eskaini zion. Honek onartu egin zuen, gosez akabatzen baitzegoen.

–Aggazoiag izangog dugzu –onartu zuen triste, bokata jaten ari zen bitartean, begirada galdu batekin.

–Noski, eta ez hitz egin ahoarekin beteta! Ez duzu erremediorik! Jajajaja –eta algaraka hasi zen, Aitzanek irribarre egin zuen.

Orduantxe, gauza batez gogoratu zen. Ahoan zeukan ogi zatia zailtasunez irentsi eta eskua lepo inguruan, kamiseta azpian, sartu zuen amonak emandako lepokoa aurkitu nahian. Bere harridurarako, ametsetan amonak oparitutako lepokoa aurkitu zuen alkandora azpian. Bizi izan zuena egia zen! Arrazoia zeukan. Erdi Aroan egon zen. Sorginen izena ez zen galduko!